

Hurrengo testua ondo irakurri eta ulertu. Ondoren, galderak erantzun.

KARRAMARROAK MAISU

Ezin jakin nongo errekan izan zen; beharbada zuen herriko erreka baten.

Hilero-hilero egiten zuten bilera bat nire ipuineko karramarroek. Goiz hartan seme-alaben ohiturei buruz aritu ziren; hobeto esateko, atzera-atzeraka ibiltzeari buruz.

-Apartekoa da benetan gure ohitura hau!-esan zuen batek.

-Apartekoa eta lotsagarria!-beste batek-. Piztia guztien artean geu bakarrik gabilta atzeraka. Ibilera itsusiagorik! Aurrerantz ibiltzen ikasi behar dugu!

-Baina guretzat berandu da. Kumei irakatsiko diegu aurrerantz ibiltzen.

Poz-pozik joan ziren gurasoak kumeengana. Hartu eskutik eta ibilalditxo bat egiten laguntzen zieten kumei. Kostata baina, ibiltzen ziren aurrerantz.

Baina ibiliko ote ziren inoren laguntzarik gabe aurrerantz? Bai zera! Eskua askatuz gero, karramarro-kumeek berriro ere atzeraka egiten zuten, gurasoek bezala.

1. Idatzi egia ala gezurra den.

- Karramarro nagusiek aurrerantz ibiltzen zekiten.

- Karramarroen ustez, itsusia zen atzeraka ibiltzea.

- Kumei ez zitzaien kostatzen aurrerantz ibiltzea.

- Kumeak aurrerantz ibili ziren handik aurrera.

2. Ordenatu zenbakien bidez eta idatzi osorik euskarako koadernoan.

- ☐ Aurrerantz ibiltzen lagundu zieten kumei.
- ☐ Kumei aurrerantz ibiltzen irakastea erabaki zuten.
- ☐ Karramarro nagusiek bilera bat egin zuten.
- ☐ Askatzean, kumeak berriz atzeraka ibiltzen ziren.